



Aurrekontu Parte-hartzaileak, autoerregelamendua

Berribeitiko Udala



## Aurkibidea

### Sarrera

### Eragileak

1. artikulua: Herritarrak
  2. artikulua: Talde Eragilea
  3. artikulua: Mahai Teknikoa
  4. artikulua: Kontzejuak
  5. artikulua: Zenbatekoak
  6. artikulua: Faseak
  7. artikulua: Zabalkundea
  8. Artikulua: proposamenen baldintzak
- I. Fasea – Proposamenen aurkezpena
9. artikulua: Proposatzaileak
  10. artikulua: Proposamenaren edukia
  11. artikulua: Aurkezpen prozesua
- II. Fasea – Proposamenen ebaluazioa
12. artikulua: Aurkeztu den dokumentazioa egiaztatzea
  13. artikulua: Baldintzak bete ote diren berrikustea
  14. artikulua: Proposamenen balorazioa
  15. artikulua: Balorazio irizpideak
- III. Fase – Proposamenen eztabaida
16. artikulua: Proposamenen hedapena
  17. artikulua: Proposamenen eztabaida
- IV: Fasea – Proposamenen hautaketa
18. artikulua: Bozketaren antolaketa
  19. artikulua: Bozketa sistema
  20. artikulua: Bozketaren zenbaketa eta emaitza
- IV. Prozesuaren ebaluazioa eta Autoerregelamenduaren aldaketa
21. artikulua: Prozesuaren ebaluazioa
  22. artikulua: Autoerregelamendua aldatzea

## Sarrera

Aurrekontu Parte-hartzaileak erakunde publikoen eta herritarren arteko kudeaketaren aldeko apustua dira. Partaidetzarako eta kudeaketarako tresna dira eta, haren bidez, herritarrek proposatu eta erabaki dezakete zertarako erabili udal baliabideen zati bat.

Gure udalerrria hamar kontzejuk osatzen dutela kontuan harturik, Aurrekontu Parte-hartzaileak hainbat prozesutan banatuta egituratuko dira. Prozesu bakoitza bere kasa garatuko da kontzeju bakoitzean, baina koordinaziopean. Horrela, kontzeju bakoitzak bere aurrekontu-hornidura izanen du eskura eta, prozesuan, auzokideek beren proposamenak aurkeztu, eztabaidatu eta aukeratuko dituzte.

“Autoerregelamendu” honek Aurrekontu Parte-hartzaileen arau eta erregela guztiak ezarri ditu, pauso eta ekintza guztiei dagokienez. Talde Eragileak prestaturik, Mahi Teknikoak, Berriobeitiko Udaleko Osoko bilkurak eta kontzeju buruek onetsi eta eman diote oniritzia. Hala ere, agiri bizia da eta urtero berrikusiko da, behar adina aldaketa egiteko, haren egokitzapena eta bilakaera ziurtatze aldera.

## Eragileak

### 1. artikulua: Herritarrak

Herritarrak dira Aurrekontu Parte-hartzaileetako eragile nagusiak, herritarrei baitagokie proposamenak oro proposatu, eztabaidatu eta erabakitzea.

Kasuan kasuko kontzejuan erroldaturiko pertsonak izanen dute prozesuan parte hartzeko eskubidea, 14 urte edo gehiago badute, barne direla urtean 14 urte beteko dituzten pertsonak.

Prozesuaren une jakin batzuetan, parte-hartzaileei akreditazioa eskatzen ahalko zaie, eta horretarako, dokumentazio ofiziala aurkeztuko dute (NANA, pasaporte, NIE edota gidabaimena). Adingabeek zilegi izanen dute erakunderen bateko txartela aurkeztea, haien izen-abizenak eta argakia ageri badira.

### 2. artikulua: Talde Eragilea

Talde Eragileak kide hauek izanen ditu:

- Boluntarioak: gehienez ere, kontzeju bakoitzeko pertsona bat.
- Zinegotziak: gehienez ere, Berriobeitiko Udaleko talde politikoetako ordezkari bana.
- Udal teknikariak: gutxienez ere, ordezkari bat.

Autoerregelamendu hau prestatzeaz gain, honatx zer eginkizun dituen:

- Aurrekontu Parte-hartzaileen prozesuko fase bakoitzeko datak finkatzea.
- Aurrekontu Parte-hartzaileen prozesuaren jarraipena egitea eta, bukatzean, huraxe ebaluatzea.
- Autoerregelamendua hobetzeko behar diren aldaketak baloratzea, eta kasua bada, onestea.

### 3. artikulua: Mahai Teknikoa

Mahai Teknikoa lan talde bat da eta Berriogoitiko Udaleko profesionalek osatua dago. Honatx mahaikideak:

- Idazkaria.
- Hirigintza alorraren arduraduna (arkitektoa edo aparejadorea).

- Kulturako teknikaria.
- Gazteria eta Kirol teknikaria.
- Kontzejuetako administraria.

Bere eginkizunak betetze aldera, beharrezkotzat jotzen badu aholkularitza gehigarria jasotzea (barnekoa zein kanpoko), badago aukera beharrekotzat jotzen diren pertsonak gonbidatzeko.

Hona hemen mahaiaren lana:

- Aurkezten diren proposamenek Autoerregelamendu honetako baldintzak betetzen ote dituzten baliozkotzea.
- Aurkezten diren proposamenak ebaluatzea, Autoerregelamendu honetan adierazitako irizpideekin bat.
- Talde Eragilea aholkatzea, Autoerregelamenduan egin daitezkeen aldaketen inguruan.

#### 4. artikulua: Kontzejuak

Kontzejuak, beren presidentearen eta Kontzejuko Juntaren bidez, aurrekontu parte-hartzaileen prozesuko zati dira, honakoaz arduratzen baitira:

- Kontzejuan aurkezten diren proposamenak ebaluatzeaz, eragozpenak atzemateko.
- Kontzejuko proposamenen eztabaida fasea antolatzea.
- Bozketak antolatzea, zenbaketa egitea eta Udalari jakinaraztea.

## Prozesuaren ezaugarriak

#### 5. artikulua: Zenbatekoak

Udal aurrekontuetako “Aurrekontu parte-hartzaileetako inbertsioak” kontusailean finkatuko da zenbat diru baliatuko den guztira. Dirutza hori kontzeju guztien artean banatuko da, irizpide hauei jarraiki:

- Dirutza finko bat kontzeju guztietarako.
- Zati aldakor bat, biztanleriaren arabera proportzioan banatuta.

#### 6. artikulua: Faseak

Aurrekontu Parte-hartzaileen prozesuak lau fase izanen ditu:

1. Proposamenen aurkezpena: Kontzeju bakoitzeko herritarrek egokitzat jotzen dituzten proposamenak aurkeztuko dituzte. Fase honetarako epea gutxienez bi astekoa izanen da.
2. Proposamenen ebaluazioa: Mahai Teknikoak proposamenak ebaluatu eta iragaziko ditu, baldintzak betetzen ote dituzten ikusita eta gutxienezko “kalitaterik” ote duten aztertuta, betiere autoerregelamendu honetan ezarritako irizpideekin bat. Fase honetarako epea gutxienez lau astekoa izanen da.
3. Proposamenen eztabaida: Kontzeju bakoitzeko herritarrek ezagutu eta eztabaidatuko dituzte kontzeju hartan bertan aurkezten diren proposamenak. Fase honetarako epea gutxienez bi astekoa izanen da.
4. Proposamenen hautaketa: Herritarrek, bozketa arautuaren bidez, proposamen bat edo hainbat hautatuko dituzte beren kontzejuan gauzatzeko. Fase honetarako epea gutxienez astebetekoa izanen da.

Kontzeju bakoitzean proposamenak hautatu ondoren, eta udal langileei prozesuaren emaitzen berri emandakoan, Udalak behar diren kontularitza eta administrazio kudeaketak eginen ditu proposamen haiek gauzatzeko, bai eta kudeaketa teknikoak ere.

## 7. artikulua: Zabalkundea

Aurrekontu Parte-hartzaileen prozesua hasi aurretik, eta gutxienez hiru aste lehenago, honako informazio hau zabalduko da, herritarren artean egokitzen jotzen diren bitartekoak erabiliz:

- Prozesuko araudiaren laburpena.
- Prozesuko fase bakoitzaren epeak.
- Kontzeju bakoitzari esleitu zaion diru kopurua.

## 8. Artikulua: proposamenen baldintzak

Proposamenak erabilera eta zerbitzu publikoko ondasunen gainean aplikatu beharko dira edota interes orokorreko jarduketan gainean. Nolanahi ere, ondasunek eta zerbitzuen udal jabetzapekoak edo eskumenekoak izan beharko dute.

Aldi berean, proposamenak zer kontzejutan aurkeztu, hartan bertan gauzatuko dira, betiere prozesua garatzen den urtean, hain zuzen ere.

Proposamen zehatzak izan beharko dute eta diruz ebaluatuak egon. Proposamenen aurrekontua ez da Udalarentzat inola ere izanen kasuan kasuko kontzejuari esleitu zaion zenbatekoa baino handiagoa. Kontzejuak edo besteren batek bere burua eskaintzen badu proposamena kofinantzatzeko, konpromiso horren baieztapen idatzia erantsi beharko da.

Aurkeztutako aurrekontuak informazio hutserako dira, eta proposamenaren balizko aukeraketak ez dakar inolako konpromisorik hirugarrenetik, inbertsioa gauzatzea Udalaren eskumena baita, eta Udalak hainbat aukera baloratuko ditu huraxe gauzatzeko.

Udalak proiektu bakoitzaren bideragarritasuna egiaztatzen ahalko du, proiektuek ekonomian, ingurumenean, materialetan eta giza baliabideetan dituzten eraginei erreparatuta. Horretarako, aurrekontu edo txosten osagarriak eskatuko ditu.

Proposamenak honako esparrutako batekoak izanen dira:

- Inbertsio zehatzak eta ukigarriak, hala obra publikokoak nola urtebetetik gorako biritza erabilgarria duten erosketak.
- Ekitaldia edo unean uneko jarduerak. Kategoria honetatik kanpo daude Udalak edo kontzejuak antolatzen dituzten jaien inguruan garatu beharreko ekitaldiak eta jarduerak.
- Denboran irauten duten jarduerak.

## I. Fasea – Proposamenen aurkezpena

### 9. artikulua: Proposatzaileak

1. artikuluan (“Herritarak”) ezarritako baldintzak betetzen dituen edonork izanen du proposamena aurkezteko eskubidea.

Ez dago mugarik proposamen kopuruan herritar bakoitzeko; hau da, pertsona batek proposamen bat baino gehiago aurkez ditzake.

Proposamenak norberaren izenean edo kasuan kasuko kontzejuko elkarte baten ordezkartizan aurkez daitezke. Pertsona fisikoentzat bezala, mugarik ere ez dago proposamen kopuruan elkarreentzat, eta bat baino gehiago aurkez ditzake.

Proposamena aurkeztean, proposatzaileak bere burua aurkeztu eta datuok eman beharko ditu:

- Izen-abizenak.
- IFZ. Adingabea bada, datu hau ez da derrigorrezkoa izanen.
- Helbidea.
- Harremanetarako telefonoa.
- Helbide elektronikoa.

#### 10. artikulua: Proposamenaren edukia

Proposamena azaltzeko informazioak atal hauek izanen ditu:

- Izenburua.
- Proposatzen denaren azalpen zehatza eta xehea. Ez da aski ideia-entzuen planteamendu orokorra egitea.
- Proposamenaren justifikazioa, zer hobetu nahi den edo zer arazo konpondu nahi den azalduta.
- Norendako edo zerendako den onuragarria zuzenean (gizarte taldea, adina, ingurumena...).
- Egin beharreko inbertsioaren aurrekontu xehatua. Aurrekontuak benetako oinarria izan beharko du, eta ez da aski izanen zenbaki simulatu baten proposamen hutsa, erkatzerik gabea, eta enpresa edo autonomo batena izan beharko du.
- Ondoko urteetan egin beharreko mantentze- eta kontserbazio-lanen gutxi gorabeherako kostua eta deskribapena.
- Proposamena hainbat urtetan garatu beharreko proiektu handiago baten zatia bada, gainerako faseen kostua eta epe aurreikusia.

Proposatzaileek, gainera, behar adina eranskin erantsi ditzakete.

#### 11. artikulua: Aurkezpen prozesua

Talde Eragileak ezarritako epe barnean aurkeztu beharko dituzte herritarrek beren proposamenak, modu hauetako baten bidez, betiere:

- Posta elektronikoz
- Aurrez aurre, Udalaren erregistroan.
- Posta arruntez Udalera igorrita.

Aurkezpena egiteko, galdetegi bat beteko da. Galdetegia, hain zuzen, arestian adierazitako informazio-atalez osatuta egonen da. Galdetegia Udaletxean eta udal webean egonen da eskura.

Proposamenak aurkezteko epea zabalik dagoen bitartean, udaleko teknikariek hitz egiteko komunikazio-bideak antolatuko dira proposamenaren planteamenduan aholkatzeko, eta era berean, aurkeztu beharreko galdetegi eta dokumentazioa nola bete aholkatzeko.

## II. Fasea – Proposamenen ebaluazioa

### 12. artikulua: Aurkeztu den dokumentazioa egiaztatzea

Proposamenak aurkeztu ondoren, Mahai Teknikoko kideek egiaztatuko dute agiri guztiak aurkeztu ote diren. Informazioan edota dokumentuetan gabeziarik atzematen bada, bost egun balioduneko epea izanen dute horiek zuzentzeko, jakinarazpenetik aurrera. Aipatu epe barnean, zuzentzen ez badira, proposamena ezetsia geldituko da.

### 13. artikulua: Baldintzak bete ote diren berrikustea

Proposamenak eta bakoitzaren dokumentazio osoa kasuan kasuko kontzejuari igorriko zaizkio, berrikuspena egiteko. Kontzejuan proposamen bati eragozpenik egiten badio, arrazoi idatzia eman beharko du gehienez ere bost egun balioduneko epean, Mahai Teknikoak aztertu eta baloratu dezan. Eragozpenik jakinarazten ez bada, ziurtzat joko da kontzejuak on-ikusia eman diela proposamen guztiei.

Ondoren, Mahai Teknikoak proposamen guztiak berrikusiko ditu, Autoerregelamendu honetan adierazitako baldintzak bete direla baliozkotzeko. Autoerregelamendu honetan adierazitako edozein baldintza betetzen ez bada, proposamena atzera botako da.

Gainera, arrazoi ekonomiko, juridiko eta tekniko begira nahiz kokapenari zein lekuaren egokitzapenari begira nabarmenki bideraezinak diren proposamenak botatzen ahalko dira atzera. Horretarako, aholkularitza eskatzen ahalko die alorreko teknikariei edo kanpoko langileei.

Baldintzaren bat betetzen ez bada, proposatzaileari errekerimendua eginen zaio, bost egun balioduneko epean zuzendu dezan. Epe horren ondotik, baldintza oraindik ere bete ez bada, proposamena atzera botako da behin betiko.

### 14. artikulua: Proposamenen balorazioa

Mahai Teknikoak proposamen guztiak ebaluatuko ditu, Autoerregelamendu honetako hurrengo artikuluan ezarritako irizpideen arabera. Atzera botako dira 25 puntura iristen ez diren proposamenak eta ez dira prozesuaren hurrengo fasera pasatuko.

Gutxieneko balorazio hori lortzen ez duten proposatzaileei zuzenean jakinaraziko zaie, eta hiru egun balioduneko epea izanen dute alegazioak egiteko, Mahai Teknikoak azter ditzan.

Mahai Teknikoaren balorazioak ez dira inola ere argitara emanen, ez prozesuak iraun bitartean, ez ondoren. Gainera, ez dira balorazio osoak izanen, zerren, mozketak-puntuaziora iristean, ez baita jarraituko ebaluazioa egiten.

### 15. artikulua: Balorazio irizpideak

Mahai Teknikoak honako irizpide hauen arabera puntuatuko ditu proposamenak.

#### 1. Eragina

Proposamenak kontzejuko biztanleriaren ehuneko adierazgarri bati eragiten dio.

- Biztanleriaren % 0tik % 10era bitarte: 0 puntu.
- Biztanleriaren % 10etik % 25era bitarte: 4 puntu.
- Biztanleriaren % 25etik % 50era bitarte: 8 puntu.
- Biztanleriaren % 50etik % 75era bitarte: 12 puntu.
- Biztanleriaren % 75etik % 100era bitarte: 15 puntu.

## 2. Integratzailea

Proposamena onuragarria da kontzejuko gizarte sarerako.

- Ez du eraginik gizarte sarean: 0 puntu.
- Komunikazio espazioak indartzen ditu kontzejuko sektoreen artean: 8 puntu.
- Lagungarria da kontzejuko biztanleriaren kohesio sozialerako: 12 puntu.
- Herritarren partaidetza sustatzen du: 15 puntu.

## 3. Jarraipena

Proposamenak badauka aukera datozen urteetan jarraitzeko, irauteko eta eragina izateko.

- Ez du: 0 puntu.
- 1etik 3 urtera bitarte: 7 puntu.
- 3 urtetik gora: 10 puntu.

## 4. Solidarioa

Proposamena Kontzejuko beharrik handieneko jendearentzat edo arloentzat da. Badu eragina kontzejuko adin taldeetan (haurrak, gazteak, adinekoak), desgaitasuna dutenengan (fisikoa, psikikoa edo sentsoriala), aukera gutxiagoko taldeetan (langabeak, etorkinak, gutxiengo kulturalak) edota kontzejuko arlo jakin batzuetan, hots, arreta txikiagoa jasotzen duten haietan, dela dentsitate txikiagoa dutelako, dela zentrotik kanpo daudelako.

Garrantziaren eta premiaren balorazioa:

- Esku-hartzea ez da beharrezkoa: 0 puntu.
- Esku-hartzea beharrezkoa da: 5 puntu.
- Esku-hartzea garrantzitsua da: 7 puntu.
- Esku-hartzea premiazkoa da: 10 puntu.

## 5. Berdintasuna

Proposamenak aukera- eta tratu-berdintasuna sustatzen du gizon eta emakumeen arteko harremanetan.

- Ez du eraginik: 0 puntu.
- Norberaren kontziliazio premiak hartzen ditu kontuan: 5 puntu
- Emakumeen eta gizonen partaidetza orekatua indartzen du: 7 puntu.
- Hezkidetza sustatzen du: 10 puntu.

## 6. Ingurumeneko eragina

Proposamenak ingurumen jasangarritasunerako irizpideak hartu ditu kontuan edo eragin onuragarria ekarriko dio ingurumenari.

- Ez du ingurumen eraginik: 0 puntu
- Ingurumen eragin ona: 5 puntu.

## 7. Mantentze-kostua

Proposamenak ez du mantentze-kosturik edo, are gehiago, kostuak ere aurrezten ditu.

- Mantentze-kostuak ditu: 0 puntu
- Ez du mantentze-kosturik: 5 puntu
- Kostuak aurrezten ditu: 10 puntu



## 8. Prestakuntza

Proposamenek ikaskuntza prozesuak nahiz herritarrak gaitzeko prozesuak sustatzen dituzte.

- Ez: 0 puntu.
- Bai: 5 puntu.

## 9. Kultur ondarea sustatzea

Proposamena lagungarria da bertako kultur ondarea eta euskara hedatu eta sustatzeko.

- Ez: 0 puntu.
- Bai: 5 puntu.

## 10. Proposamen berria

Proposamenaren xedeak edo xede-taldeak jada onura jaso du aurreko hiru urteetako aurrekontu parte-hartzaileetako batean

- Bai: 0 puntu.
- Ez: 5 puntu.

## 11. Proiektua faseetan

Proposamena aurreko urteetako aurrekontu parte-hartzaileetan onuradun izaniko urte anitzeko proiektu baten zatia da; beraz, hein batean jada gauzatu da.

- Ez: 0 puntu.
- Bai: 5 puntu.

# III. Fase – Proposamenen eztabaida

## 16. artikulua: Proposamenen hedapena

Aurreko fasea gainditu duten proposamenak udal webaren bidez argitaratuko dira.

Proposamenaren informazio guztia argitaratuko da, aurkeztu den bezalaxe, proposatzailearen harreman datuak izan ezik, horiek isilpean edukiko baitira.

## 17. artikulua: Proposamenen eztabaida

Kasuan kasuko Kontzejuko Juntak bilera bat antolatzeko ahalmena izanen du, aipatu kontzejuan aurkezten diren proposamenak hedatu eta eztabaidatzeko. Proposatzailea ez da inola ere behartua egonen bere proposamena aurkeztera edo haren alde egitera eztabaida saio horietan.

# IV. Fasea – Proposamenen hautaketa

## 18. artikulua: Bozketaren antolaketa

Kontzeju bakoitzean aurrez aurreko bozketaren bidez hautatuko dira proposamenak. Kontzeju horretan errolaturiko pertsona guztiek izanen dute parte hartzeko eskubidea, gutxienez 14 urte badute.

Kasuan kasuko kontzejua arduratuko da proposamenen bozketa antolatzeaz. Kontzejuak, zehazki, botoa emateko bozkalekua, egunak eta ordutegiak finkatu beharko ditu. Kontzeju bakoitzak zilegi izanen du erabakia bere kasa hartzea, baina bi muga hauek kontuan hartuta:

- Bozketa egunek, zehazki, Talde Eragileak fase horretarako ezarri duen epearen barnean egon beharko dute.

- Proposamen bat baino gehiago badago, gutxienez beste bi egun gehiago finkatu beharko dira botoa emateko; bata, astez, eta bestea, asteburuan. Gainera, herritarren parte-hartzea erraztu eta bultzatuko duen ordutegi bat ere bai.

Mahaia bi kidek osatuta egonen da, uneoro: bata, boluntarioa izanen da, eta bestea, berriz, Kontzejuko Batzarraren ordezkari bat.

Udalak kasuan kasuko errolda jarriko du kontzeju bakoitzaren eskura, bai eta bozketa txartelak ere. Boto-emaeleek agiri ofizial baten bidez identifikatu beharko dute beren burua, eta adingabeek, berriz, erakunde edo elkarte bateko txartelaren bidez, izen-abizenak eta argazkia ageri badira, betiere.

#### 19. artikulua: Bozketa sistema

Botoa ematera doan pertsona bakoitzak bi proposamen bozkatu beharko ditu; bati hiru (3) puntu emanen dizkio, eta besteari, puntu bat (1).

Arau hori urratzen duen boto-paper oro baliogabekotzat joko da eta ez da ezin botorik zenbatuko, ez proposamen batentzat, ez bestearentzat. Horrek, dena den, salbuespen bakarra izanen du, hots, proposamen bakarra izatea bozketagai.

#### 20. artikulua: Bozketaren zenbaketa eta emaitza

Zenbaketa jendaurrean egingen da, mahaia bozketa itxi ondoren. Proposamen guztiak eskuratu dituzten puntu guztiak batuko dira, eta proposamenak puntuazioaren arabera hurrenkeran jarriko dira.

Udalak, aurrez, zenbaketaren akta emanen du. Bada, mahaikide batek Udaletxera eramanen ditu akta hori eta boto-paperak, bozketa ondoko lehen egun baliodunear.

Udalak udal webaren bidez zabalduko ditu kontzeju bakoitzeko emaitzak eta partaidetza datuak.

Puntu gehien eskuratu duen proposamenak behar adinako aurrekonturik uzten badu bigarrenentzat, hori ere gauzatuko da. Eta horrela, hurrenez hurren.

## Prozesuaren ebaluazioa eta Autoerregelamenduaren aldaketa

#### 21. artikulua: Prozesuaren ebaluazioa

Aurrekontu Parte-hartzaileetako prozesua aztertze aldera, azken ebaluazio hauek egingen dira:

- Mahai Teknikoaren ebaluazioa.
- Kontzejuetako Junten ebaluazioa.
- Talde Eragilearen ebaluazioa.

#### 22. artikulua: Autoerregelamendua aldatzea

Autoerregelamendua aldatzeko, eragileen azken ebaluazioak hartuko dira kontuan. Ebaluazioa horiek oinarri harturik, Talde Eragileak egokitzen jotzen dituen aldaketak proposatuko ditu eta, Mahai Teknikoaren nahiz Kontzejuetako Junten iritzia bildu ondoren, azken proposamena egingen du.